


# ETXEA IPUIN ESKOLA



RA



IBAIZABAL



# ETXEA IPUIN ESKOLA

MARI  
LAMINAK  
OLENTZERO



IBAIZABAL

**ZUZENDARI OROKORRA** — **BARNEKO DISEINUA**  
Fermin Iraolagoitia Juan Carlos Landa

**EDIZIO ZUZENDARIA** **MARRAZKIAK**  
Sabin Gorrotxategi Jesse

**EDIZIO KOORDINAZIOA** **MAKETAZIOA**  
Eukene Herrera Aitziber Ibaibarriaga, Aitor Zumalabe

**AZALA** **FOTOMEKANIKA**  
Jesse, Juan Carlos Landa Croman

**Inprimaketa**

R.G.M., S.A.

Padre Larramendi 4, Beheko Solairua  
48012 Bilbo

© Juan Manuel Etxebarria, 2002

© Ibaizabal argitaletxea, 2002

ISBN: 84-8325-585-5

Lege Gordailua: BI-871-02

# ETXEA IPUIN ESKOLA

**Egilea:**

Juan Manuel Etxebarria

**Euskarazko testuaren moldaketa:**

Sabin Barruetabeña

**Gaztelerazko testua:**

Carmen Elvira

**Marrazkilaria:**

Jesse



**IBAIZABAL**



11958



## SARRERA

Euskal Herria herri zaharra da eta horrexegatik mendez mendeko bizikerak ere ugariak izan ditu. Historia luze honetan, besteak beste, zenbat eta zenbat ipuin, esaunda eta pasadizu bizi izan ote ditu gure Euskal Herri honek! Askok, inongo dudarik gabe.

Gure herriaren joan-etorri luze honetan eta eskolak sortu arte, **etxea** izan da belaunaldien arteko ahozko eskola bizia. Gaur egun, ordea, eskola ederrez beterik daukagu gure herria eta, material egokiak bitarteko, ikasteko aukerak ezin hobekak dira. Baina, aukerak aukera, etxea beti izango dugu etxea eta etxeko irakatsiak ondo baino ere hobeto datozkio eskolakoari, gaztetxoaren hezkuntza integralerako.

Gaztetxo bat herri edo hiri bateko etxe baten bizi da, etxetik eskolara doa eta hango zereginak bete ondoren, berrien berriz dator etxera bere senitarteko eskolara. Etxeko hezkuntzak garrantzi handia dauka eta, horraxek joan nahi dugu eskuetan duzun lan honekin. Ipuin bilduma hau, beraz, eskolarako ezeze etxerako ere eskaintzen dugu, etxea ipuin eskola egiteko.

Gaurko Euskal Herria euskalduntzen ari bada ere, eskola-ikastola eta abarretako umeen etxeko askok euskara maite du, baina ez darabil. Hala ere, ez larritu! Liburu honetako ipuin bakoitzak bere itzulpen-laburpena darama azpian, euskararik erabiltzen ez duenak ere gaia ulertzeko.

Euskara dakienak euskaraz eta euskara ez dakienak gaztelera irakurri ondoren, elkarrizketa sortuko da eta denok hartuko duzue parte gure herri zaharraren bizikera eta hizkuntza ezagutzen.

Liburua gainera irudi erakargarriekin apainduta dago begiak ere betetzeko.

Gure euskal mundu zahar honek, zenbat gura eta harexen beste ipuin ditu, baina eskaintza berri honi hasiera emateko ipuin hauek aurkezten zaizkizue:

- Mari
- Laminak
- Olentzero

Besterik ez. Irakurri denok etxean, bakoitzak ahal duen eran, etxea, euskara eta euskal kulturaren eskola eginez!

*Juan Manuel Etxebarria*

## INTRODUCCIÓN

Euskal Herria es un pueblo antiguo y por eso tiene vivencias de todos los tiempos. En su larga historia, ¿cuántas y cuán variadas leyendas, cuentos, relatos... habrá tenido nuestra Euskal Herria? ¡Muchas, sin duda alguna!

Durante todo este tiempo y hasta que han surgido las escuelas, la **casa** ha sido el lugar de encuentro de nuestra comunicación oral. El niño o la niña sale cada día de casa para ir a la escuela, pero al finalizar su tarea vuelve a su casa, a la escuela familiar. La labor educativa de la casa tiene mucha importancia y, es ahí adonde queremos llegar con este libro que tienes entre manos.

Euskal Herria se está euskaldunizando y aunque los escolares vayan adquiriendo el euskera, muchos de sus familiares lo desconocen o no lo utilizan con soltura.

¡No os preocupéis! Cada uno de estos cuentos lleva debajo su traducción resumida al castellano para que lo puedan entender también los que no saben euskera. Tanto los que lo lean en euskera como los que lo hagan en castellano tendrán la oportunidad de entablar un diálogo fructífero intergeneracional y así poder conocer las vivencias, creencias..., en definitiva, la cultura de nuestro antiquísimo pueblo.


Nuestro pueblo tiene infinidad de leyendas y en este libro os presentamos los siguientes títulos: Mari, Laminak, Olentzero.

Os proponemos que las leáis en casa en familia, cada uno como pueda, pero tratando siempre de hacer de la casa una auténtica escuela de nuestra cultura.

*Juan Manuel Etxebarria*



# MARI








Neguko iluntze batean, biloba eta biok geunden baserriko supazterrean. Bilobak Mari jainkosa zahar eta famatuaren sorreraren berri galdetu zidanean nire aititari hainbestetan entzundako hurrengo hau kontatu nion. Aitu!

Un anochecer de invierno estábamos mi nieto y yo junto al fuego. Mi nieto me preguntó si conocía como había surgido la leyenda de Mari y yo le conté la historia que mi aitita me había contado tantas veces. ¡Escucha!







Oso antzina, Euskal Herriko etxe batean ama-alabak bizi ziren, biak bakarrik. Ama Joxepa oso langilea zen, egun osoan aritzen zen lan eta lan etxe inguruko baratzean eta basoetan.

Alaba Mari alferra zen eta lanak egitea utzi, orrazia hartu eta bere ile hori ederra orraztu eta orraztu aritzen zen egun osoan.


Ama etxera iristean beti zeuzkan lanak egin gabe. Egunero gauza bera: amak, lanetik etxera oso nekatuta etorri arren, berak egin behar izaten zituen etxeko behar guztiak.

Hace muchos, muchísimos años vivía en una casa de Euskal Herria una madre con su hija.

La madre Joxepa era muy trabajadora, pero Mari, la hija, era vaga.

La madre salía temprano a trabajar en las huertas y bosques de los alrededores; mientras, Mari se quedaba en casa para hacer las tareas del hogar.

Cuando al atardecer Joxepa volvía cansada a casa, se encontraba con todo tal cual lo había dejado y a Mari peinándose su preciosa melena rubia.







Ama oso ona zen eta barkatu eta barkatu egiten zion alabari baina, egun batean besteetan baino nekatuago etorri zen lanetik. Han zegoen bere alaba, beti bezala, ilea orrazten eta, etxeko lanak egin gabe zeuzkan. Pazientzia gehiago hartu ezinik, maldizio bat bota zion bere alabari:

—Alaba alferra eta bihotz gogorra, ez didazu ezer egiten; joan zaitez nire etxetik gutxienez hoba zulo baharti batera eta ez zaitez berriaz etorri.


Esan eta izan! Ama-alabak betirako banandu ziren. Ama etxean gelditu zen eta alaba, maldizioaren indarrezugarretan, han joan zen Anbotoko leize batera eta harrezkero, Mari izenez ezagutzen da.

Joxepa era muy buena y aunque todos los días se enfadaba con Mari, todos los días la perdonaba. Pero un día Joxepa llegó a casa más cansada que de costumbre y, al ver a Mari tranquilamente peinándose su melena, se enfadó mucho y le echó una maldición:

—Jamás pensé que tuviera una hija tan holgazana y egoísta. Vete de mi casa a vivir a una cueva y no vuelvas nunca.

Y así fue. Madre e hija se separaron; Joxepa se quedó en casa y Mari, envuelta en una gran bola de fuego, se fue hasta la cueva de Anbotó.







Bakar-bakarrik egon zen leize barruan. Gaua luze egin zitzaion. Egunsentia etorri zenean, janari bila atera zen harkaitz bitarterik harkaitz bitarte. Harrapatu ahal zituen muskerrak gordin-gordinik jaten zituen.

Bakarrik egon beharko zuela pentsatzen zuen, baina ez zen luzaro egon bakarrik. Inguruetako artzainek neska ile hori galant hura ikusi zutenean, leizera hurbiltzen hasi ziren. Harengana joan eta halako neska ikusgarria bakarrik eta ezer gabea zegoela jakinik, joan beren txaboletara eta denetik eramaten zioten ase arte.

Mari pasó la larga noche en la cueva. A la mañana siguiente salió a buscar algo de comida. Sólo encontró algunos bichos y se los comió crudos. Mari pensó que se moriría de hambre y soledad, pero se equivocó.

Los pastores del lugar, al ver a aquella joven tan guapa peinándose su rubia melena, pronto se acercaron a ella y le ofrecieron cuanto tenían.









Gaur gauza bat, bihar beste bat, hutsik zegoen leizea, apurka-  
-apurka ederki bete zen, bikain apaindu zituen bazterrak eta bapo bizi zen.  
Jende asko joaten zitzaion ikustera eta behar zenean kontsultak egitera.  
Urteak joan eta urteak etorri, ama Josepa bere alabaz gogoratu zen.  
Aspaldi ez zuen haren berririk eta Anboto alderantz abiatu zen. Batari  
galdetu eta besteari galdetu, jakin zuen non bizi zen Mari bere alaba. Hara  
iritsi eta alabak zeraman bizimodu erosoa ikusita, maldizio berri bat bota zion:

La gente del lugar empezó a llevarle no sólo comida, sino también cosas para que su cueva pareciese un verdadero hogar. Mucha gente visitaba a Mari para pedirle consejo cuando tenía problemas y otros simplemente se acercaban a verla, ¡era tan guapa!

Pasaron los años. Joxepa se acordaba de su hija y decidió ir a visitarla a su cueva de Anboto. Al llegar a la cueva y ver lo bien que vivía, le echó otra maldición:









—Kanpora hemendik! Hemen ondoegi bizi zara! Zoaz beste leize baharti batera. Ez zaitut ikusi nahi inoren kontura bizitzen!

Marik amaren esana bete eta sugarretan joan zen Gorbeia ondoko koba batera: Supelegorrera. Gauez iritsi zen. Koba oso handia zen. Koba aurrean egon zen luzaro eta inguru guztietara begiratu arren ez zuen ezer ez entzun ez ikusi.

Inguruetako artzainak, halako su-bola ikusita, beldurturik zeuden txabola eta etxeetan.

*—¡Fuera de aquí! A partir de ahora vivirás en una cueva completamente abandonada. ¡No quiero que vivas a costa de nadie!*

Mari no tuvo más remedio que cumplir lo que su madre le dijo. La bola de fuego esta vez le llevó a la cueva de Supelegor, junto al Gorbea.

Los pastores, al ver el resplandor, se refugiaron en sus casas.





—Kanpora hemendik! Hemen ondoegi bizi zara! Zoaz beste leize baharti batera. Ez zaitut ikusi nahi inoren kontura bizitzen!

Marik amaren esana bete eta sugarretan joan zen Gorbeia ondoko koba batera: Supelegorrera. Gaez iritsi zen. Koba oso handia zen. Koba aurrean egon zen luzaro eta inguru guztietara begiratu arren ez zuen ezer ez entzun ez ikusi.

Inguruetako artzainak, halako su-bola ikusita, beldurturik zeuden txabola eta etxeetan.

*—iFuera de aquí! A partir de ahora vivirás en una cueva completamente abandonada. ¡No quiero que vivas a costa de nadie!*

Mari no tuvo más remedio que cumplir lo que su madre le dijo. La bola de fuego esta vez le llevó a la cueva de Supelegor, junto al Gorbea.

Los pastores, al ver el resplandor, se refugiaron en sus casas.







Biharamunean jende asko pilatu zen kobaren aurrean.  
Neskaren edertasuna ikusirik ahoa zabalik eta lerdea zeriola zegoen jende guztia. Neska bikaina zen!


Koba barrena erabat hutsik zegoela eta, artzain eta nekazariak lasterka joan ziren beren etxe-txaboletara eta denen artean Gorbeia koba oso ongi bete zuten ontziz, tresnaz, jantziz, janariz eta edariz. Hura zen izatekoa! Anboton baino ere bikainago zegoen eta!

*Al día siguiente, la gente se agolpaba a la entrada de la cueva para ver a Mari.*

*Todos se quedaban boquiabiertos ante tal belleza, y todos estuvieron de acuerdo en que la cueva no era un lugar adecuado para Mari.*

*Poco a poco Supelegor se llenó de comida y regalos, y Mari pensó que viviría mejor aun que en Anboto.*







Amak jakin zuenean bere alaba lehen baino ere bikainago bizi zela, zuzen abiatu zen alabaren bizilekura. Hango handitasuna eta edertasuna ezin eramunik, beste maldizo bat bota zion berriren berri:

—Zoz hemendik koba bahartiren batera; baina ez Anbotora edo Gorbealara. Alde hemendik!

Mari, birritan pentsau gabe, Txindoki aldera joan zen.

Joxepa pronto se enteró de la vida que Mari llevaba y se acercó hasta el Gorbea para echarle otra maldición:

—*Te irás a vivir tú sola lejos de Anboto y Gorbea. ¡Fuera de aquí!*

Y sin dudarlo, Mari se fue hacia Txindoki.





JESSE-83



Han ere bizitza bikaina egiten hasi zen artzainen eta nekazarien kontura. Baina urteak joan eta urteak etorri, herri handiagoak egin ziren eta herrietan elizak, ikastolak, frontoiak, futbol-zelaiak, etxeetan irratiak eta telebistak sartu ziren eta, Mariren entzutea galtzen joan zen.

Allí tampoco le fue mal a Mari y consiguió vivir a costa de los pastores de la zona. Pero los pueblos se fueron haciendo más grandes, cada vez había más casas, escuelas, frontones, también llegó la televisión... y la gente se olvidó de Mari.








Garai batean entzute handiko Mari ahaztu egin du jendeak. Alferrik joaten da koba batetik bestera hango artzainen kontura bizitzeko asmoz. Artzainek ere, Mariren biziera ezagutzea baino, nahiago dute ardiak nola zaindu eta gazta hobea nola egin ikastera Arantzazuko artzain-eskolara joatea. Eta Marik galdu egin du lehengo irribarrea. Pitxer bete txakolinen aurrean ematen du eguna koba barruan sartuta.

Mari recorre las cuevas de Euskal Herria buscando a los pastores que tanto la ayudaron. Pero la vida de los pastores también ha cambiado; ahora prefieren cuidar de sus ovejas y aprender nuevas técnicas para hacer más sencillo su trabajo, y tampoco ellos se acuerdan de Mari.







Mari zahartzen doa. Izen handikoa zena, ahaztu egin du jendeak.

Bakarrik gelditu da ilargiaren eta izarren argi ilunak beste adiskiderik gabe, garai bateko irudimenak asmatutako emakume alfer eta ederra.

Ipuin hau kontatu dizuna hemen dago; ikusi duena, batek daki!

Mari ha envejecido, ha perdido su fama. Aquella mujer tan guapa sólo tiene por amigos a la luna y a las estrellas...

—Aitita, todo esto que me has contado, ¿es verdad?


—El que te ha contado esta historia está aquí, pero el que ha visto a Mari..., a saber.







# LAMINAK








Alaba, suhi eta bilobatxoarekin bizi gara aitona eta biok baserri eder batean. Negua iristen denean burura etortzen zaizkidan ipuinak kontatzen dizkiet etxekoei artoa ale bitartean. Gaur zuek ere gure etxeko sukaldera gonbidatuta zaudete. Aurrera!

En un precioso caserío vivimos aitita y yo con nuestra hija, su marido y nuestra querida nieta. Cuando llega el invierno y mientras desgrano el maíz les cuento cuentos que me vienen a la memoria y que yo también escuchaba de niña.

Hoy también vosotros estáis invitados a nuestra casa. ¡Adelante!







Mendi arteko etxe polit batean neska gaztetxo bat bizi zen eta ikastolara oinez joaten zen lasterbide batetik. Egun batean ikastolatik etxerantz zihoala, erreka ondoan laminak ikusi zituen ilea orrazten.


Nik ez dut inoiz laminarik ikusi, baina nire gurasoek esaten zutenez, emakume berezi batzuk omen ziren. Gerritik gora emakumeak eta gerritik behera arrainak edo ahateak. Egun argitsuetan erreka ertzean ileak orraztu eta orraztu egoten omen ziren eta, esnea asko gustatzen omen zitzaien. Ederrak eta politak omen ziren, baina pertsonak ikusiz gero, plasta!, uretara salto egiten omen zuten.

Había una vez una niña que vivía en una casa en el monte. Todos los días iba andando a la escuela por un atajo que pasaba cerca del río. Un día, al volver de la escuela, vio en la orilla del río a unas lamias peinándose.

Yo no las he visto nunca, pero mis padres decían que eran unas mujeres muy especiales. De cintura para arriba eran iguales a cualquier mujer, eso sí guapísimas, pero de cintura para abajo tenían forma de pez o de pato.

Les gustaba estar al sol, junto al río, peinándose su hermosa cabellera, pero si escuchaban a alguien, se metían al río para no ser descubiertas. También dicen que les gustaba mucho la leche.









Eta esaten ari nintzen bezala, neskato horrek erreka ertzean laminak ikusi zituenean, isil-isilik joan zen hurbiltzen, katua sagua harrapatzera bezala, baina dena alferrik, laminak neskatoa ikusiaz batera uretara sartu ziren.

Neskatoa penaz beterik gelditu zen laminak ezin izan zituelako ikusi, baina lurrera begiratzean urre gorritzko orrazi bat ikusi zuen. Hartu orrazia eta etxera joan zen pozez beterik.

Gaua iritsi zenean, neskatoa, beti bezala, ikastolako lanak egin, afaldu, aitonaaren ipuin bat entzun eta ohera joan zen lo egitera, bere urrezko orrazia eskuan hartuta. Oso pozik zegoen. Baina elizako kanpaiaren «abemariak» entzun eta gerotxoago, bere logelako leihoan zarata bereziak entzun zituen, eta beldurtu egin zen.

Bueno, como os iba diciendo, cuando la niña vio las lamias junto al río, se acercó suavemente, como el gato que quiere atrapar al ratón, pero fue inútil, las lamias se zambulleron en el río rápidamente.


La niña se quedó apenada por no poderlas ver de cerca, pero lo que sí vio fue el peine de oro que una de las lamias se olvidó con las prisas.

La niña guardó el peine y se fue a su casa.

Como todos los días, hizo los deberes de la ikastola, cenó, escuchó el cuento de su aitona y se fue a la cama. ¡Estaba feliz! Tenía el peine de las lamias.

Sin embargo, justo después de escuchar las campanas del pueblo tocar el «Avemaría», la niña empezó a oír ruidos extraños junto a la ventana de su habitación.









Hala ere, jaiki eta leihora joan zen, alde guztietara begiratu ere bai, baina ez zuen ezer ikusi. Orrazia eskuetan hartuta berriz sartu zen ohean. Handik lasterrera, erdi lo zegoela, berriz ere lehengo zarata bereziak entzun zituen. Oraingoan abesti beldurgarri bat ere bai:


Nesha lapur negargarri  
sentitzen zaitugu larri  
bahean bizi nahi baduzu  
orrazi hori eharri.

Aunque estaba asustada, se levantó y se acercó a la ventana. Miró hacia todos los lados, pero no vio nada extraño.

Con el peine en la mano se volvió a la cama y, cuando estaba medio dormida, empezó a oír de nuevo aquellos ruidos extraños en la ventana, pero ahora acompañados de una horrorosa canción:

*Niña ladrona, llorona,  
el miedo no te abandona.  
Si quieres que te dejemos en paz,  
devuélvenos el peine ya.*









Neskatoak orrazia oso gogoko zuen eta entzunak entzunda ere, ez zuen nahi bere orrazia galtzerik eta, lorik egin gabe joan zen ikastolara.

Egunez lasai eta erdi lotan egon zen neskatoa, baina hurrengo gaua iritsi zenean, bezpera gauean bezala gertatu zitzaion; laminak gau guztian aritu ziren zarataka abesti hura abesten.

Neskatoa erdi zoraturik zegoen eta, gehiago pentsatu gabe, hartu urre gorrizko orrazia eta ahal zuen indar guztiarekin bota zuen leihotik kanpora eta, berehalaxe bukatu ziren zaratak eta abestiak.

La niña no quería deshacerse del peine de las lamias y éstas siguieron cantando toda la noche.

Al día siguiente, la niña fue a la escuela sin haber dormido en toda la noche. Pasó el día medio dormida, pero cuando llegó la noche y empezó a oír de nuevo aquellos ruidos y aquella canción al pie de su ventana, la niña no pudo más y, sin pensárselo dos veces, tiró el peine por la ventana. Inmediatamente se acabaron los ruidos y las canciones.







Egun batzuk igaro ziren eta neskatoa, zuek orain bezala, sutondoan zegoen bere gurasoekin egosten ari zen esnari begira.

Tximiniatik Lamitxo izeneko laminatxo bat agertu omen zitzaien eta, esnezaleak direlako, esan omen zuen:

—Txuria gora, txuria gora.

Neskatoak, esneak gainezka egin baino lehen, esne-ontzia su gaineretik baztertu egin zuen.

Lamitxok esan zion neskatoari:

—Badakit urre gorrizho orraziarekin zer gertatu zitzaizun eta laminen beldur zarela, baina betekada bat esne ematen badidazu, lamina guztiak nola desagertuko diren esango dizut.

Esan eta egin. Esnez goraino bete zutenean, Lamitxok beste lamina guztiak salatu zituen esanez:

Pasaron los días.

La niña estaba sentada junto al fuego, como ahora estamos nosotros, cuando de repente apareció Lamitxo por la chimenea. Ya os he dicho que a las lamias les encanta la leche y por eso Lamitxo le dijo así a la niña:

—Blanco arriba, blanco arriba.

Y antes de que subiera la leche, la niña la retiró del fuego, y la lamia le dijo así de nuevo:

—Yo sé lo que te ha pasado con el peine de las lamias y también sé que les tienes miedo, pero si me das un gran vaso de leche, te diré como librarte de ellas.

Cuando Lamitxo quedó satisfecha al beber la leche que le dio la niña, ésta le reveló el secreto para acabar con las lamias.









—San Joan egunean jaiotako zekor bikotearekin erreka goldatzen baduzue, lamina guztiak desagertuko dira.

Etxekoek hau entzutean, herriko guztiei kontatu zien.

Urteak joan eta urteak etorri, jaio ziren san Joan egunez bi zekorrak eta herritar guztien artean zaindu zituzten jatekorik onenak emanda indartsuak hazteko.

Zekorrak hazi zirenean, hezi egin zituzten erreka ongi goldatzeko.

—*Si aras la tierra del río con una pareja de terneros nacidos en el día de san Juan, desaparecerán todas las lamias* —le dijo.

Al oírlo, los de la casa se lo contaron a todo el pueblo.

Pasaron los años y nacieron dos terneros el día de san Juan. Todo el pueblo se encargó de darles de comer para que crecieran fuertes y sanos.







Udaberriko egun eder batean, herri guztia elkartu zen, zekor bikotea uztartu, hagindun golde berezia uztarrira lotu eta herriaren goiko auzorantz, ergoienerantz, joan ziren erreka goitik beheko auzoraino, elbarreneraino goldatu eta garbitzeko.

Hasi ziren zeregin hori betetzen eta goldearen hortzetan zaurituak, odola zeriela eta garrasi batean desagertu omen ziren betiko lamina guztiak.


—Amona, zein ipuin polita gaurkoa!

Y un bonito día de primavera, el pueblo entero se reunió. Los terneros ya estaban preparados y el arado también.

Empezaron a arar desde el barrio más alto del pueblo hasta el que estaba más abajo, siguiendo el curso del río. Y entre los dientes del arado, las lamias se iban deshaciendo en gritos y sangre.

—Amona, ¡que cuento más bonito!










Gogo eta irrika handiz entzuten ditu bilobatxoak nik kontatzen dizkiodan ipuinak. Eta entzun bakarrik ez, idatzi ere egiten ditu gogoko dituenak gero bere lagunei kontatzeko.

Nuestra nieta escucha con gusto y emoción los cuentos que le cuento. Y no solamente los escucha sino que también escribe los que más le gustan, para luego contárselos a sus amigos.



TESTE:83



# OLENTZ ZERO







Euskal Herriko mendi batean jentilak ikatza egosten ari ziren.

Jentilak jaietako erraldoiak bezalako gizon handi eta indartsuak ziren, oso antzinakoak, zuen aitonaren birraitona baino lehenagokoak. Baratzak lantzen eta tresnak egiten herritarrak baino aurreratuagoak ziren. Kobetan bizi ziren.


Jentilak oso indartsuak zirelako, harriak botatzera jolasten zuten, zeinek harri handiagoa bota mendi batetik bestera.

En los tiempos de nuestros antepasados había unos hombres grandes y fuertes, como los gigantes de las fiestas de los pueblos, que se llamaban gentiles.

Vivían en cuevas, pero estaban mucho más adelantados que el resto de los hombres haciendo herramientas y trabajando la huerta.

Se dedicaban a hacer carbón en los montes de Euskal Herria. Eran tan fuertes que jugaban a ver quien tiraba la piedra más grande de un monte a otro.







Neguaeren hasierako egun batean, jentilak ikatza egosten ari zirela, laino zuri distiratsu bat jaiki zen Ekialdetik.

Euria ekartzeko edo elurra egiteko zuriegia zen, udaberriko ekaitzerako goizegi, inork ezin zuen asmatu zer zekarren laino zuri eder hark. Laino berezia zen. Astiro-astiro zetorren eta geroago eta argi handiagoa zeukan.

Jentil handi eta indartsuak beldurrez dardarka zeuden eta ez zekiten zer egin. Halako batean jentil batek esan zien bere lagunei:

Un día de comienzos de invierno, en el que los gentiles estaban cociendo el carbón, vino hacia ellos una nube desde Oriente.

Para ser una nube que trajera agua, nieve o una tormenta de primavera, era demasiado blanca. Nadie podía imaginar qué traía aquella nube tan blanca.

Poco a poco llegó hasta donde estaban los gentiles con una gran luminosidad. Los gentiles estaban asustados, sin saber qué hacer, hasta que un gentil le dijo a otro:







—Laino zuri hori ez dakigu zer den; zergatik ez goaz gure jentil aitonarengana eta ez diogu galdetzen zer den edo zer ez den? Gu gazteak gara eta ez dakigu zer den, baina gure jentil aitonak beharbada asmatuko du.

—Egia da! —erantzun zuten beste guztiek.

—Goazen arin jentil aitonarengana eta berak esango digu zer den —esan zuten orduan jentiletako batek.

—Nosotros no sabemos qué es esa nube tan blanca porque somos jóvenes, pero el mayor de los gentiles lo sabrá. Vamos a preguntar.

—Es verdad —dijeron los demás.





JESSE-83



Lasterka joan ziren hara, jentil aitona eserita zegoen tokira.

Jentil aitona egiaz ere zaharra zen, ile eta bizar zuria ia lurreraino zituela. Zaharraren zaharrez begiak ere itxita zeuzkan eta ezin zuen ezer ikusi. Entzun ere oso gutxi entzuten zuten haren belarriek. Eskuak eta hankak gogortuta zeuzkan eta ez zen gauza ezertarako; jaten ere ahora eman behar zioten.


Burua makurturik zegoen, goibelduta, ezertarako gogorik gabe, indarrik gabe eta noiz hilko zain.

Fueron corriendo hasta donde estaba el más anciano de los gentiles.

Era un hombretón viejo en verdad, cuyo pelo y barba le llegaban casi hasta el suelo. De tan viejo que era, ni veía ni apenas oía y las manos y las piernas apenas se le movían. ¡No era capaz ni de comer sólo!

Con la cabeza inclinada y una expresión triste esperaba sin fuerzas la muerte.





JESSE-83



Jentil gazteak lasterka hurbildu ziren eta arnasestua lasaitzeko astirik gabe esan zioten:

—Aitona, Ekialdetik laino zuri argitsu bat dator eta ez dakigu zer den. Zugana gatoz ia zuk ote dakizun.

Jentil aitonak orduan burua astiro-astiro gorantz altxatu eta esan zien:

—Ireki nire begiak laino berezi hori ikusteko eta esango dizuet zer den.

Los jóvenes gentiles se acercaron corriendo al mayor de los gentiles y, sin perder tiempo y aún sofocados, le preguntaron:

—Aitona, desde Oriente se acerca una nube blanca muy extraña y no sabemos qué puede significar.

El anciano levantó la cabeza muy lentamente y dijo:

—Abrid mis ojos, que yo pueda ver esa nube y os diré qué es.







Orduan jentil gazteek hartu egurrezko palanka handiak eta jentil aitonaren betazalak ireki eta laino zuriari begira jarri zuten.

Isilik zeuden denak. Jentil aitona isilik eta gazteak isilago. Denak laino zuriari begira. Hura zen ikustekoa! Munduko gizonik handienak eta indartsuenak ikaraturik eta beldurtuta beren buruen gainean zegoen lainoari begira!

Dardarka zeuden guztiak eta jentil aitonaren begiak gorritzen hasi ziren.


Entonces los gentiles jóvenes cogieron un gran palo y, haciendo de palanca, le levantaron sus párpados al mayor de los gentiles.

El anciano se quedó callado contemplando la nube, los jóvenes esperaban la respuesta mirando al anciano y a la nube.

Los hombres más poderosos de la tierra miraban la nube impresionados y temerosos.

Entonces los ojos del mayor de los gentiles empezaron a enrojecerse.







Halako batean jentil aitona hizketan hasi zen bi eskuak gora jasota:

—Gu baino handiagoa jaio da! Gureak egin du! Bota nazazue harkaitzetik behera!

—Baina nor edo zer da gu baino handiago hori? —galdetu zioten jentil gazteek zer zen jakin-min handiz.

Jentil aitonak orduan berriz burua makurtu eta esan zuen:

—Jesus da, Jainkoa da eta mundura etorri zaigu. Gurea buhatu da. Gu ahaztuta geldituko gara betiko. Jesus Jainkoa da orain nagusi.

De repente el anciano levantó las manos hacia el cielo y empezó a hablar:

—*¡Alguien superior a nosotros ha nacido! ¡Estamos acabados! ¡Tíradme desde las rocas al barranco!*

—*¿Pero, qué puede ser superior a nosotros?* —preguntó un joven gentil queriendo saciar su curiosidad.

El mayor de los gentiles, bajando la cabeza, le respondió:

—*Es Jesús, es Dios que ha venido al mundo. El reino de los gentiles se ha acabado. Pronto se olvidarán de nosotros para siempre. Ha llegado el reino de Jesús.*







Hori entzutean, jentil guztiak harrituta gelditu ziren eta jentil aitonak esan zien bezala, txandaka hartu bizkarrean jentil aitona, harkaitzaren gailurrera eraman zuten eta gero handik behera bota.

Jentil aitona hil egin zen eta beste jentil guztiak goiko harkaitzaren puntan behera begira zeuden, zer egin ez zekitela.

Al oír esto, los jóvenes se quedaron muy desconcertados, pero hicieron lo que el anciano les había pedido.

Lo llevaron como pudieron hasta las rocas y lo dejaron caer. El mayor de los gentiles murió y el resto se quedó mirando sin saber qué hacer.







Halako batean, erdi eroturik eta zorabiatuta, Sartalderantz etortzea erabaki zuten.

Lasterka zetozen bidean eta atzerantz begiratzen zuten bakoitzean laino zuria ikusten zuten beren gainean, eta gehiago larritzen ziren.


Ibili eta ibili, baina laino zuria beti gainean. Ezin zuten ihes egin. Beren buruak galduta ikusten zituzten. Une horretan askatu zen loka zegoen harkaitz puska handia. Harri hori behera iritsi zenean, haren azpian sartu ziren eta denak harripean hil ziren. Harri handi hari «Jentilarri» deitzen zaio.

En ese momento medio locos y sin saber a dónde ir, decidieron dirigirse a Poniente, pero siempre que miraban hacia atrás, la nube les seguía.

Cada vez estaban más nerviosos y la nube, siempre encima de ellos.

De repente se soltó una gran roca desde un monte cercano y los gentiles, viendo que estaban acabados se metieron debajo de ella. Murieron aplastados, y desde entonces a esa piedra se le llama «Jentilarri» que significa piedra de los gentiles.







Jentiletatik gazteena besteak baino atzerago zeterren, eta bere burua bakarrik ikustean, besteak bezala harripean sartu ordez, inguruko herrietara joan zen berri ona ematera.


Azkenengo jentil hau alaia zen, Olentzero zeukan izena, eta herritarren lagun handia zelako, pozik joan zen herrirantz aitona jentilari entzundako berri ona ematera.

Joan eta joan, mendi, haran eta basoetatik asko ibilita gero, halako batean, euskaldunen herritxo batera iritsi zen.

El más joven de los gentiles venía detrás del grupo y vio todo lo sucedido.

Este gentil, que era muy alegre y amigo de los hombres, se llamaba Olentzero y fue quien se dirigió al pueblo a dar a los habitantes la noticia del nacimiento de Jesús.








Herrira iritsi zenean, bere indar guztiarekin hasi zen deadarka esaten:

—JESUS jaio da! JESUS jaio da! Poztu guztioh! Jesus Jainhoa jaio dela Belenen! Alaitu, poztu zaitetzte!

Después de mucho andar por montes, bosques y valles llegó hasta un pueblo de Euskal Herria. Cuando llegó, gritó con todas sus fuerzas:

—*iHa nacido Jesús! ¡Alegraos! ¡Jesús ha nacido en Belén! ¡Alegraos!*







Olentzeroren deadar handiak entzutean, herritar guztiak etxeetatik atera eta herriko plazara joan ziren.

Han zegoen Olentzero herriko plazaren erdian isildu gabe berri ona ematen. Pixkanaka herritar guztiak elkartu ziren Olentzeroren inguruan.

Denak pozik, denak txaloka eta goraka.


Hura zen pozaldia! Denek gauza bera esaten zuten:

—Gora Jesus Jainkoa! Aintza zeruetan eta bahea lurrean!

Todos los habitantes del pueblo al oír a Olentzero salieron de sus casas y fueron a la plaza. En medio de la plaza, sin poder callar, estaba Olentzero dando la buena noticia. Todos daban saltos y vivas al oír la noticia.

—*i Viva Jesús, nuestro Dios! ¡Gloria en el cielo y paz en la tierra!*








Herri hartako biztanle guztiak asko poztu ziren eta Olentzerorekin jai bat ospatzea pentsatu zuten. Olentzero ere oso pozik zegoen herritarren poza ikusita; baina herrira etortzeko asko ibili zelako nekatuta zegoen eta gose eta egarri zen.

Herritarrak, Olentzero gose eta egarri zela ikusirik, beren etxeetara joan ziren Olentzerorentzat janari eta edari bila. Olentzero plazaren erdian gelditu zen herritarrek jateko eta edateko zer ekarriko ote zioten zain.

En el pueblo, todos se alegraron mucho y pensaron celebrar una fiesta con Olentzero.

Olentzero estaba muy contento viendo a sus amigos tan alegres, pero después de haber andado tanto se encontraba cansado y hambriento. La gente del pueblo decidió ir a sus casas y traerle comida y bebida para que se repusiera. Mientras, Olentzero esperó tranquilamente en la plaza.







Era guztietako janariak eta edariak ekarri zizkioten Olentzerori.

Olentzerok, herritarrek ekarri ahala, dena jaten eta edaten zuen eta haren sabela geroago eta handiagoa egiten ari zen.


Herritarrak, Olentzero hainbeste jaten ikusirik, berriz joan ziren etxeetara eta janari gehiago ekarri zioten.

Hura zen betekada, hura! Hura Olentzeroren poza!

Le trajeron todo tipo de comida y bebida, pero era tan voraz el apetito de Olentzero que más de uno tuvo que volver varias veces a casa en busca de más comida y bebida.

¡Qué atracón! ¡Qué felicidad la de Olentzero!







Handik laster batean, Olentzeroren inguruan jaia ospatzen ari ziren batzuek pentsatu zuten:

—Zergatik ez dugu eramaten Olentzero herriz herri beste guztiek ere ezagutzeko Jesus Jainkoaren jaiotza?

Denek ontzat eman zuten asmo hori eta Olentzerorengana joan ziren bere iritzia jakiteko.


Olentzerok baietz esan zien, baina, betekadaren betekadaz, ahalegin guztiak eginda ere ezin zen mugitu.

Algunos de los que estaban celebrando la fiesta junto con Olentzero pensaron:

—¿Por qué no damos la noticia al resto de los pueblos de Euskal Herria?

Le preguntaron a Olentzero qué pensaba de la idea, y aunque le pareció estupenda, era incapaz de moverse después del atracón.








Orduan, Olentzero ezin zela mugitu eta, herriko gizon indartsuenak elkartu, haritzeko habe batzuk ekarri eta eskailera itxurako anda egin eta erdi-erdian aulki zabal eta sendoa ezarri zuten. Hantxe eseriko zen Olentzero eta hamar gizonen artean bizkarrean hartuta eramango zuten.

Arotz onak zeuden herri hartan eta ongi egin zuten eskailera moduko anda hori. Lasterka joan ziren herriko plazara Olentzero gainean esertzera.

Como Olentzero no podía moverse, los hombres más fuertes del pueblo construyeron una especie de andas en forma de escalera con unas vigas de roble y pusieron encima una silla.

Olentzero se sentaría en la silla y entre diez hombres lo llevarían sobre los hombros.







Bien bitartean, herriko emakumeek bildu ahal izan zituzten jantzi egokiekin apain-apain jantzi zuten gure Olentzero: buruan txapela, lepoko zapia, garai haietako brusa urdina, alkandora urdin argia eta mahoizko galtzak, gerriko beltza, artilezko galtzerdiak eta larruzko abarkak.

Olentzero bere aldetik, poltsikoan zeraman pipa handia hartu, hortzetan ipini, harrizko txiskeroz piztu eta kea botatzen hasi zen, lizar-makila sendoa besoan zuela.

Las mujeres del pueblo se encargaron de buscar ropas adecuadas para vestir elegantemente a Olentzero: boina en la cabeza, pañuelo en el cuello, blusón azul típico de la época, camisa azul clara y pantalón de mahón, cinturón negro, calcetines de lana y abarcas de cuero.

Olentzero sacó la pipa que llevaba en el bolsillo, la encendió y apoyado en su cachaba empezó a fumar tranquilamente.







Dena zegoen prest, baina herriko bertsolari, albokari, dultzainari, txistulari eta trikitilariak Olentzerori abesti bat egitea pentsatu zuten, gero herriz herri abesteko.

Ez zekiten nolako abestia egin, eta batzuk hau, besteak hori ari ziren; azkenean Olentzerok berak egindakoa kontatzen duen abesti bat egin zuten.

Olentzeroren abesti hori gaur ere pozik abesten dugu Gabon ingurura iristean.


Todo estaba preparado, sólo faltaban los músicos para tocar el txistu, la alboka, la dulzaina y también los bersolaris.

Pensaron dedicarle una bonita canción a Olentzero, pero ninguno sabía cómo empezar.

Después de mucho pensar, decidieron componer una canción con todo lo que había hecho Olentzero.

Esta canción es la misma que cantamos en Navidad para demostrar que estamos contentos.







Biharamunean, herriko gizon indartsuenek elkartu eta Olentzero eskailera gaineko aulkian ezarri zuten, inguruan jakiak eta edariak ugari zituela. Gero, andariak bizkarrean hartu eta, alai atera ziren herritik beste herri batzuetara berri ona eramatera.

Bidean Olentzeroren kantua abestu eta abestu joan ziren eta herri guztietan zabaldu zuten Jesus Jainkoaren jaiotzaren berri.

Olentzerorekin bukatu ziren Euskal Herriko jentilak. Harrezkero Euskal Herrian urtero abesten da Olentzeroren abestia Jesus Jainkoaren jaiotza ospatzean.

Al día siguiente, los más fuertes del lugar pusieron a Olentzero sentado en la silla con bastante comida y bebida su alrededor, y se fueron de pueblo en pueblo dando la noticia.

Con Olentzero se acabaron los gentiles en Euskal Herria. A partir de aquel momento, todos los años cantamos la canción de Olentzero para celebrar el nacimiento de Jesús.







## OLENTZEROREN ABESTIA


Olentzero joan zaigu  
mendira lanera,  
intentzioarekin  
ikatz egitera.  
Aditu duenean  
Jesus jaio dela,  
lasterka etorri da  
berri ematera.

Canción de Olentzero.

Olentzero se ha ido  
al monte a trabajar,  
con la intención  
de hacer carbón.

Cuando ha oído  
que Jesús ha nacido,  
ha venido corriendo  
a darnos la noticia.







Horra, horra,  
gure Olentzero,  
pipa hortzean duela  
eserita dago.  
Kapoiak ere baditu  
arrautzatxoekin  
bihar meriendatzeko  
zahato ardoakin.

Olentzero, buru handia,  
entedimentu gabia,  
bart arratsean  
edan omen du  
hamar arroako zahagia.  
Ai, urde tripaundia!

Aquí, aquí está  
nuestro Olentzero,  
sentado con la  
pipa entre los labios.  
Tiene capones  
con sus huevos  
para merendar  
con la bota de vino.

Olentzero, de cabeza grande,  
sin mucho entendimiento,  
ayer se bebió diez arrobas  
de vino.  
¡Ai, tripero!







## La familia, lugar de encuentro para la cultura.

Bajo el título *Etxea ipuin eskola* pretendemos recopilar diversos cuentos de la cultura tradicional vasca e impulsar el papel decisivo que la familia tiene como transmisora de los valores culturales.

Herri Biblioteka / Iurreta  
Etxea ipuin eskola /  
Etxebarria, Juan Manuel (1948-)  
EUSTRA ETX etx



5643453

